# ¡EGABERA GAXUA!

*(Gorostola'tar Kauldi'ri)*

Itun, samiñez betea, bildurez josita,
zure eraile gaiztoak ekarita,
egabera gaxua,
arkitzen zera lari nere magalian,
ego-bat zauriloa, eta il-zoriyan,
odolez loitua...,
zure begi polilak itzal zabaldurik,
oyekin, zeure oñazeak agertu-nairik...
biziro mindua.

✦ ✦ ✦

Nere eskuakin dizut papara ikutu
ta zure biotzeko lariya oyekin somatu;
biziro estutua
gaxo ori daukazu..., ¡erukaria!
uferatuaz datorkizu eriotz izugaria;
¡egaztitxo gaxua!
lurmen-bila zerade betxoraño jetxi,
ta eiztari biotz-geak bereala erauzi;
¡eraile gaiztua!

✦ ✦ ✦

Ain zera polita, ain zaude otzan,
zure miñak ituna sortu-du nigan;
ai nork lezaken,
zure eria osatu, zuri biziya eman,
poz-pozik atsegiñez jun-zaitian egan:
bañan zaude iltzen...
ta zure buru apaña zuaz makurtzera;
¡ai zer itzala, ai zer kupira,
diazun ematen!

*Tene.*

# EUZKELDUN NESKATILAI

## NESKATIL ON-ONAREN EREDUBA

*Fenelon*'ak, Cambrai'ko gongotzale *(arzobispo)* samur ta onak, *Telemaque* deritxon bere idazti ezilgoran, neskatil on-onaren eredu jaraigarija eskintzen dausku:

«*Antiope*, diño *Mentor*'ak, samura, apala ta zura da; bere eskubak eztabe lana ezesten; aldija eldu baño len, gauza gustijak gertetan dauz; ixiltzen daki ta egiten; ordu gustijetan arazotuta dago, baña iñoz bez ezta urdurituten, gauza gustijak aldi egokijan egiten dauzalako; bere gurasuen etxia atondutia da bere eginbiarik matiena. Gauza gustijak bere ardurapian egon-aren, etxeko gustijak pozik dagoz beti, gustijak ondo erabilten dauzalako, ta beragandik eztalako girua txarik sortuten, beste emakumiakandik sortuten diran lez. Begirada bategaz bakarik bere gurea aditu-erazoten dau; biarezkua bakarik agintzen dau; agiraka-egiten dau bigun eta matero. Bere ataren bijotza beragan atsedenduten da, eguzkijaren izpi beruak nekatutako bidezkarija bedar aztiñan atsedenduten dan lez. Bere gogua, bere gorputza lez, eztauz gurutzezko apaingijaz apainduten: polita dala eztau jakin gura. Eztau itzik egiten biarezkua danian baño, ta abua zabalduten daunian, itz zurak eta uste erubagiak urteten dira bere ezpanetatik.»

Ona emen, orain, Salomon'ak egindako emakume on-onaren ereduba:

«¿Nor ixango da emakume on-ona bilatuko daun gixon zorunduna? Beran bilatu biar-da saririk balijotsubena lez. Bere senararen bijotza beragan atsedenduten da ta bere etxian ugaritasuna ixango da beti. Edozelan be, naiz senara beragaz biar-dau baxen ona ixan ezta be, bera beti ixango da ona senaragaz. Bere utsak zuzenduko dauz. Uskerijetan jolastu - biarian, beste emakumiak lez, bere eskuz lan-egingo dau. Nagijak jo-barik, egunsentijaz jagiko da, gustija gertetako. Bere besuak, lanian nekatzen eztiran besuak saritan zabalduten dira txiruai laguntzeko. Lanian irabaziriko gorputzaren indara ta berezko edertasuna dira bere apaingi bakarak. Geidi edo *projimua* ganako matasunaren lagijak zuzenduten dauz bere miña eta bere itzak. Berak menduten dauz bere semiak. Beronek goralduten dabe edonun eta bere senarak dirautso: emakume askok aberastu yonez euren sendijak, baña euk gustijak baño geyago egin don eure ekandun eta ixakereaz.»

¡Zoruntsubak euren senarakandik onelako itzak entzuten dabezan emakumiak!

*Etxakin.*

## Lukainkia dalakuan...



«Lastertxu aparija» — diño Astakilo'k:
Ostatuko moroyak ekarten bai-dautso.



Baña periodikuba gogoz irakurten,
Mayan daukon lukainka gustiz dau aiztuten.



Bitartian txakurak lukainkia artuta,
Silan bira-eginda, damotso bustana.



Eta geure gixonak, kutxilua arturik,
Txakur gaxua izten dau bustan-punta-barik.

# IDAZTI BARIJA

«*Aitaren Bildur*». Azkue'tar Berbiz Mirena jauparijak bidaldu dausku ixen oregaz berak argitalduriko antzeztijaren ijeki bat. Eskarik asko.

Gogoz irakuri dogu. «Sasi-eskola» ren antzekua da, mutiko-neskatuak antzeztutekua; baña alkar-izketeak mamintsubak ixan-aren, «Sasi-eskola» atsegiñago yaku «Aitaren bildur» baño, arek onek baño irakaskixun andijagua daukolako.

Bost abesti daukaz antzezti orek eta atsegin-atsegiña ixan yakuz eurek.

"La Cervecera del Norte" -- Bilbao
Munich, Orija ta Argija gararduak